

115

**ZEHARGALDERA OROKORRETAKO ADITZ-ATZIZKIA:
-(E)N ETA -(E)NETZ**

Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V liburukian, konplementazioaz diharduen sailean leku berezia hartzen dute zehargalderek (ikus 83-131 orrialdeak). Hor esaten da zer diren zehargalderak, zehargalderak onartzen dituzten aditzak zein diren, zenbat galdera mota den eta, orokorki, nola euskalki guztietan, zehargaldera guztien bereizgarria *-en* erlazio atzizkia den. Adibidez:

- (1) Ez dakit joango naizen ala telegrama bat bidaliko diodan.
- (2) Eriak galdegin du noiz sendatuko den.
- (3) Nork daki zuzen zer gerta daitekeen?

Ohartzen gara gainera partikula zenbait, *ea* eta bere aldaerak (*hea, ean, eian, ia, ian*) edo *ote* (bizkaieraz *ete*) eransten zaizkiela kasu batzuetan zehargaldera horiei, bereziki orokorrak direnean, hots *bai / ez* erakoei dagozkienean:

- (4) Galdegin zioten *ean* abiatuko ziren, berriz ere, benjamintarren kontra (B. Larreguy, *Testament çaharreco eta berrico historia* I, 241).
- (5) Zunda zazu zure bihotza, eta ikhusazu ea *baduzin* Jainkoa baithan Jesu-Kristoren merezimenduek galdetzen duten bezalako fidantzia bat (Duhalde, *Meditazioneak*, 236).
- (6) Joxepantoniri galdetzera noa ea norbait azaldu *dan* (Labayen, *Euskal eguna*, 65).
- (7) Geure burua aipatu dut, eta ez dakit zuzen mintzatu *naizen* (Mitxelena, Lan guztiak, "Zinea etab", 149).
- (8) Egia erran, ez dakit azken oreneko lanbroek iluntzen *dautaten* gogoia; bainan etorkizuna biziki itsusia agertzen zait (Lafitte, *Murtuts eta bertze*, 115).
- (9) Ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokatuen arao-biraoek ez *ote duten* horretan parterrik izan, berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean (Mitxelena, *Lan guztiak*, "Zinea etab", 181).

Baina, horiez gain, gertatzen da beste berezitasun bat ere zehargalderetan, hots, zehargaldera orokorra denean, *-en* indartzeko, hizki bat gaineratzen zaiola batzuetan, hizki horrek forma ezberdinak dituelarik, hau da, *-z, -entz, -ez* edo *-etz*. *EGLUK* (V-1, 100. or.). Tradizio zaharrean, Iparraldeko testuetan ez ezik, Bizkaiko batzuetan ere, hala nola Añibarroretan aurkitzen da, indargarri hori.

1. *-enz* forma Pouvreau, Axular eta XVII. mendeko idazleengan aurkitzen da, baina geroztik osoki itzaltzen da:

- (10) Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhatuaren begira dagoenz Jainkoa zure egunen akhabatzeko (P. Axular, *Gero*, 83).
- (11) Ea Sarako euskara *denz* Euskal Herriko hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen (Marterre, *Doctrina Christiana, Euskaldunei*).

2. **-enentz** forma guztiz berria da eta bereziki Bilbao, Zaitegi, Otxolua eta Hegoaldeko idazle bakan batzuek bultzatua:

(12) Ikusiko dozue Bartolo hori be beste edozein bestean bildurtia danentz (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 179).

3. **-enez** forma aski zabaldua da, Leizarraga, Pouvreau, Voltaire baitan XVI. eta XVII. mendeetan, Añibarrok ere ondoren, eta XIX. mendeaz geroz bereziki Iparraldeko Zalduby, Laphitz, Hiriart Urruty, Barbier, Constantin, Etchepare, Oxobi, guzien baitan:

(13) Ene euskara, eta lengagia eztaikit aprobatia izanen denez, bai ala ez (J. Tartas, *Oña hilceco bi-dia*, 6).

(14) Besteak ihardetsi zuen: nik ez dakit gaixtoa denez (B. Larreguy, *Testament çaharreco eta berri-co historia* II, 179).

(15) Iñok eztaiki Salbatuko danez (Añibarro, *Eskuliburua*, 1, 53).

Bizkitartean nahasketa bat sor daiteke forma honetatik, zeren **-enez** atzizki berak perpaus modala **-amak erraiten zinez = amak erraiten zienaren arabera-**, edo erlatibo hutsa **-joaiteko xedetan zirenez artha zuen-** adieraz baitezake, non ez duen *ea* edo *ote* partikulak zehargaldera espresuki adierazten:

(16) Hartakoz da galtho *heia* emaztiak egiazko adiskidegoaz gei diradiaz ta izkontziaz kanpo halakorik badenez (J. Eguiateguy, *Lehen liburua*, 217).

(17) Utzak, dakusagun *eia* ethorriren denez Elias horren enparatzera (J. Leizarraga, *Testamentu Berria*, Mat XXVII, 49).

(18) Orano *eia* zurerik heldu denez (A. Oihenart, *Neurtitzak II*, 21-22).

4. **-enetz** forma ere nahiko berria da, XIX. mendean denaz geroz agertzen. Baina lekukotasun asko dauzka bereziki Iparraldean, Duvoisin, Hiriart Urruty, Etchepare, Lafitte, Arradoy eta Oxobirekin, baita bestalde ere, Zaitegi, Erkiaga eta Mirandek baiterabilte. Gaur egun, forma hori da Iparraldean erabiltzen ohi dena:

(19) Zortzitik zortzira ikusi behar da *heia* mutxitzen abiatzen denetz (J. Duvoisin, *Dialogues basques*, 90).

(20) *Ea* badenetz langile (J. Hiriart Urruty, *Mintzaira. Aurpegia. Gizon*, 220).

(21) Zure senarra fleitean denetz nahi ginuke ba jakin (Oxobi, *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*, 28).

Horiek oro ikusita, ondokoa da Euskaltzaindiaren gomendioa:

1. Zehargaldera guztietan bezala, zehargaldera orokorretan ere aditzak **-(e)n** forma hartzen du, eta aski da atzizki hura, zehargaldera ongi osatzeko, nahiz harekin batean *ea* edo *ote* bezalako beste zenbait indargarri ere erabil daitekeen:

- a) *Ez dakit zuzen mintzatu naizen*
- b) *Galdetzera noa ea norbait azaldu den*

2. Halere, zehargaldera orokorreko aditzari atzizki indargarria erantsi nahi bazaio, anbiguitaterik sortzen ez duen **-(e)netz** atzizkia erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak euskara baturako:

- a) *Begira iezaiozu ongi ea gaitzik ageri duenetz*
- b) *Askotan banago gizon horrek besterik ikusten ote duenetz*
- c) *Ez dakit ikusi dugunetz*

(Euskaltzaindiak, 2001eko otsailaren 23an, Lekeition, onartua)